


Antzinako euskara.

Garai hartan glaziarrek estali zuten iparraldeko Europa osoa. *Permafrost* deituriko izoztutako luraren muga 45 ° paraleloan zegoen. Egungo Frantziaren erdian. Baina Alpeko mendiek eraginetako hozten ondorioz hegoalderantz inklinatu zen lerro horrek Bordele eta Niza gaurko hiriei dagozkien tokiak lotu zituen. Hegoaldeagoan bizitzea ezinezkoa zen. Gure arbasoek elur-orein eta Bizkaiko Golkoan bankisaren gainean itsas txakurrak ehizatu zituzten. Eurasiako kontinente muturrean kokatutako santutegi honetan zibilizazio bat garatu zen Akitaniarena. Erlikia bezalaxe kanpoko eraginik at zegoen gure hizkuntza lurreko giza zibilizazioaren lehen lekukotasuna da. Garai hartatik datozkigun izenak toponimoak alor honetan kokatzen dira. Adibidez Larrieu abizena XX. mendeko datuek erakusten diguten bezala. Lurra horri leiala gatzazkiolako oraindik ere bertan bizitzen segitzen dugu.



Eremu honetako toponimoak egunero ahoskatzen ditugu. Baina, zer esan nahi dute? Antzinako hizkuntza ahaztu dugulako inork ez daki jakintsuek baizik. Agian haien ikerlanak lagunduko digu gure burua hobeto ezagutzeko. Lehen begiratuan, badirudi termino guztiak logika berean kokatuta daudela. Haiengan ezkututzen den sekretua aurkitzeak gure arbasoen izpiritua indarra ezagutaraziko digu. Mundu hartan bizirik irauteko deklinabide sistemari ezker beharrezko eta ezinbesteko informazioa azaltzen zen funtsezko gaiei erantzuteko.


1. Non dago -urrun edo hurbil-?
2. Bizitegi al da?
3. Aterpe bat al dago?

Adibidez : **OST** edo **OUST** hitza hiru galde horiei erantzun zaie. Argi dezagun puzzle hau.

Erakusleak

Lehenbizikoz **AUR** deituko mundua hiru zatitan banatu zuen antzinako euskaldunak, hots Akitaniarrak.

1. **AU** hitzak esan nahi du hemen edo gu, gizon-emakume garena. **AU** da gure lehenbiziko izena. Hitz honekin ikastoletan gure historia abiarazi behar da (eta ez gure nortasuna suntsitzen duen Parisetik inportatutako alegiarekin: galiarrak ote ziren gure arbasoak). Orain arte gure abizenen bukaeran **AU** daramagu: **HAU, CAU, LAU, BARRAU, LARRAU, OUSTAU...** XX. mendearen hasieran abizen horiek Akitaniako eta Iberiko lurraldean nagusiki ziren.



2. **OR**: hona edo lagunarteko mundua. Adiskideko munduari **OR** zeritzon Akitaniarrak. Adibidez: ordots, orein, hor.
3. **AR**: han edo arraroa, arrotz, arerioa, hartz. Horrela mundu arrotza, etsairena deitu zuen.

Munduko lehenbiziko partizio horrek gure eguneko trinitatea irudikatzen du. Jatorrizko Hirutasun hori hainbat kultura eta filosofiek kopiatu zuten bere baitan eredu hori ipintzeko Aurizki moduan **AU, OR** eta **AR** erakusleek objektuaren kokapena zehazten digute.

Adibidez :

1. **AUTHEZ**: gure hemengo etxe.
2. **ORTHEZ**: ondoko etxe.
3. **ARTHEZ**: urrungo etxe.

Era berean hiru erakusle horiek erabiltzen zituen tartea eta denbora neurtzeko.

Adibidez. (**BA** -emakumea-)


1. **AUBA**: gure -hemengo -gazte- emakume.
2. **ORBA**: ondoko edo adineko emakume.
3. **ARBA**: urruneko antzinako zahar emakume -arbaso-.
- 4.

Lokatiboko deklinabide.

Nahasmen hori saihesteko Akitaniarrak asmatu zuen lokatiboko deklinabidea. Aurrizkian erakuslea adjektibo gisa gelditzen da. Hitz bukaeran ezartzen den lokatiboko deklinabideak bere gain hartzen du objektuaren kokapena zehazteko betekizuna.

1. **ON** izendatutako segurtasun eremuan onak diren **AU** -gureko- eta **OR** -inguruko adiskideko- munduak kokatzen dira.
2. **AN** segurtasun perimetroaren at dagoen eremu arriskuan arrotz arerio hartz dabilta. Horrela mundua bi zatitan banatu zuen Akitaniarrak. Dualismoaren lehenengo filosofia sortu zuen. Akitanieraz hitz egin dezagun:

- AUBON**: gazte -emakume- gertu.
AUBAN: gazte -emakume- urrun.
ARBON: zahar -emakume- gertu.
ARBAN: zahar -emakume- urrun.



Mugagabeko lokatiboko deklinabidearen bukaera: **EN**. Adibidez, **ARBEN**.

Deklinazioak	Hurbilekoa	Urruneko	Mugagabekoa
Erakuslea	HAU HOR	HAR	AUR
Lokatiboa	ON (UN)	AN	EN

Adibidez:

- *ARBON, ARBONNE, NARBONNE, CARCASONNE, BAION.*
- *ARIGRAN, IBAN, BASTAN, BARBAZAN, SALECHAN, SIRADAN.*
- *BAGEN, BENNE, BERTREN, BAUSEN, ESTEBEN.*

Irakurleari zerrenda hau osatzeko uzten diot . Hitz amaieran I bokala bada, deklinabidearen bokala desagertzen edo bustitzen da.

Adibidez:


- *GARI+ON= GARIN, ASPI+ON=ASPIN,*
- *AURI+ON= AURION -HAURILLON-, BAI+ON= BAYONNE.*

Eserlekuko deklinabide.

Gune hori ea bizitegi ote den? Galdera horri erantzuteko izenaren bukaeran **OS**, **AS** edo **ES** partikula ipini zuen Akitaniarrak. “Comminges” herrialdeko kobazuloa **GARGAS** deitu zuen han bizi zelako. **BOS** **BAS** edo **BES** deituko gunean **BA** emakumea bizi zen. **S** edo **Z** letrak jakinarazten digu leku horiek bizitokia zirela.

Deklinazioak	Hurbilekoa	Urruneko	Mugagabekoa
Erakuslea	HAU HOR	HAR	AUR
Eserlekuko	OS (US)	AS	ES edo EZ

Adibidez: *AUBOS, AUBAS, AUBES; ORBOS, ORBAS, ORBES; ARBOS, ARBAS; ARBES.*



XX. mende hasieran familia izen horiek daude antzinako euskararen eremuan.

Aterpeko deklinabide.

OT, AT, edo ET bukaerak jakinarazten digu aterpe bat dagoela. **D** ahostuna edo **T** ahoskabea amaieran.

Deklinazioak	Hurbilekoa	Urrunekoak	Mugagabekoa
Aterpeko	OT (UT)	AT	ET edo DE

Adibidez:

- **OT** : *BARROT, BELOT, SALOT,*
- **AT** : *BARRAT, AUZAT AUSSAT, LABAT.*
- **ET** : *BARRET, AZET, JUZET, SODE, BORDE.*

Konbinatua.

Elkarri lotuta -lokatibo eserlekuko aterpeko- hiru deklinabideen konbinazioa gunen baten ostalaritzari buruz jakinaren gainean jarri zaigu. Garai hartago benetako Michelin Gida.

- **O + S + T = OST.** Gertu bizitokia estalita.
- **OU + S + T = OUST.** Gertu bizitokia estalita.
- **A + S + T = AST.** Urrun bizitokia estalita.
- **E + S + T = EST.** Zehaztugabeko, bizitokia estalita.

Adibidez, *OUSTAU, OUSTAL, OUSTALET, OUSTRIERES* gaskoieraz. *OSTIRALITZA* euskaraz eta *HOSTELLERIE, HOTEL* erdaraz. Pirinioen Olinpoko mendian *ASTOS* eta *ESTOS* deituko tontorrek nagusitzen dute.

Akitaniako deklinabide bilduma

Deklinazioak	Hurbilekoa	Urrunekoak	Mugagabekoa
Erakuslea	HAU HOR	HAR	AUR
Lokatiboa	ON (UN)	AN	EN
Eserlekuko	OS (US)	AS	ES
Aterpeko	OT (UT)	AT	ET
Eserlekuko + Aterpeko (konbinatua)	OST (UST)	AST	EST

Deklinazioen sistema eta gramatika eraginkorren medioz gehieneko informazioa jakinarazteko berebiziko hizkuntza asmatu zuten gure arbasoek adimen zorrotza zeukaten.

Pierre Haffner